

Kokaina kontsumoak gora egin du Europan

Kokaina sarri kontsumitzen dute Europan 1,5 milioi lagun inguruk, eta Drogen Europako Behatokiak ohartarazi du gazteen «estimulatzaile gustukoena» bihurtzen ari dela

AINARA ARGOTIA - DONOSTIA

Marihuana eta kokaina dira Europan gehien kontsumitzen diren legez kanpoko drogak. Drogen Europako Behatokiak ohartarazi du, gainera, kokainak estimazio handia hartu duela gazteen artean, eta «droga estimulatzaile gogokoena» bihurtzen ari dela, bereziki Erresuma Batuan eta Espainian. Euskal Herriko daturik ez dute eman. Erresuma Batuan, 15 eta 34 urte bitarteko gazteen %4k kontsumitu dute azken hamabi hilabeteotan. Europa osoan, berriz, uste da bederatzita milioi lagunek probatu dutela noizbait kokaina. Aurten, 3,5 milioi lagunek baino gehiagok hartu dute kokaina, eta horietatik 1,5 milioi inguruk sarri kontsumitu dute. Kokainaz gain, estasi eta anfetamina kontsumoak ere gora egin du.

Drogen arazoa Europan izenburuko urteroko txostena argitaratu zuen atzo Drogen Europako Behatokiak. Europako Batasuneko estatu kideetako datuez gain, Bulgariakoak, Errumania-koak, Turkiakoak eta Norvegiakoak ere aztertu dituzte aurten. Eta baita AEBetakoak ere, soilik konparazioak egiteko bada ere. Izan ere, historikoki drogen kontsumoa Europan baino dezente handiagoa izan da AEBetan.



KOKAINA KONTSUMOAK. Europan bederatzita milioi lagunek probatu dute noizbait kokaina. Aurten, 3,5 milioi lagunek probatu dute, eta 1,5 milioi lagun ohiko kontsumitzaileak dira. BERRIA

Edozelan ere, EBko zenbait herrialdetan ia berdindu dituzte AEBetako kontsumo datuak, kalamuari, estasiari eta kokainari dagokionean behinik behin. Kokaina menpekotasunagatik Herbehereetan artatzen dute jende gehien, eta Espainian gero. Estasiari dagokionean, berriz, honako herrialde hauetan kontsumitzen dute gehien: Erresuma Batua (herritarren %6,9k), Txekiar

Errepublikak (%5,9), Espainia (%3,8) eta Estonia (%3,7). Drogen Europako Behatokiaren arabera, aztertutako herrialdeetan 2,6 milioi biztanlek hartzen dituzte estasia edota anfetaminak. Hau da, pertsona helduen %0,8k. Erresuma Batuan, Alemaniaren eta Grezian egonkortu egin da kontsumoa.

Oro har, marihuana da Europan gehien kontsumitzen den droga, baina aldea dago batetik bestera. 2005. urtean 20 milioi lagun inguruk probatu dute kalamua Europan. Horietatik bederatzita milioi inguruk —herritarren %4k— egunero hartzen dute. Egunero kontsumitzen dutenetatik gehienak gazteak dira; hirutik bat gizonak.

90eko hamarkadatik hona Erresuma Batua izan du marihuana kontsumo maila altuena, baina azken urteotan egonkortu egin da han. Gora, EBn sartu diren azken herrialdeetan egin du. Txekiar Errepublikan, Espainian eta Frantzian ere hazi da kontsumoa, eta egun ia Erresuma Batuan beste kontsumitzen da. Horren harira, adituek ohartarazi dute oraindik ez dagoela argi droga horrek zer kalte eragiten dituen.

Kokaina kontsumoaren inguruko datuak bereziki kezkarriak direla esan dute txostenean. Laguntza eskatzen duten droga menpekoen %10ek kokaina hartzen dute. Crack —kokaina kristalizatu— kontsumoa oso apala da Europan, eta «hiri nagusietara mugatzen da, bereziki Erresuma Batuko eta Herbehereetako hiri nagusietara». Crack-ak, hori bai, osasun kalte larriak eragiten dituela nabarmendu dute txostenean.

Drogen Europako Behatokiaren arabera, drogen ondorioz hiltzen direnen %10 kokaina gaindosiengatik hiltzen dira. Kokaina trafikatzailerentzako merkatu ona da Europa. 2003. urtean, adibidez, 90 tona kokaina antzeman zituen Poliziak, 2002an halako bi ia. Kokaina gehiena Iberiar Penintsula eta Herbehereetan barrena sartzen da EBn.

Heroina kontsumoak, berriz, behera egin du EBko herri gehienetan. Opiazeoak hartzen dituzten artean, murriztu egin da droga bide parenteralez hartzen dutenen kopurua. Hala, opiazeoak hartzen dituztenen erdiek baino gutxiagok injektatzen dute heroina.

GIZA ESKUBIDEAK

Unicefek salatu du urtero hiru milioi neskatore egiten dietela ablazioa Afrikan

ERREDAKZIOA

Urtero gutxienez hiru milioi neskatore egiten diete ablazioa Saharaz Hegoaldeko Afrikan eta Ekialde Hurbilean, Unicefek ohartarazi duenez. Normalean, sei urte betetzean erazten dizkiete genitalak neskatorei, ablazioa indarrean den herrialdeetan. Baldintza kaskarretan sarri, askotan esterilizatu bako gailuak erabiltzen dituztelako ebakuntza hori egiteko. Hori dela-eta askok infekzio larriak izaten dituzte ugaltze sisteman eta gernu sisteman. Horren ondorioz, giltzurrunetako arazoak ere gara ditzaizkete eta asko hil egiten dira. Horren harira Unicefek dio oso zaila dela datu bat ematea, neska askok isilean pairatzen dutelako sufrimendu hori.

OME: «Genero indarkeria osasun arazo larritzat hartu behar da»

ERREDAKZIOA

Emakumeen aurkako indarkeria uste baino arruntagoa dela ondorioztatu du Osasunerako Mundu Erakundeak, gaiaren inguruan egin duen lehen ikerketan. Azterketa horren arabera, bikotekidearen esku jasaniko bortxa da emakumeek munduan pairatzen duten indarkeria modurik arruntena. Etxean indarkeria pairatzen duten emakumeek bi aldiz aukera gehiago dute osasun arazoak zein buruko gaixotasunak izateko, ikertzaileen arabera. Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen %20k ez dute inoiz salatu, OMEren arabera. «Ikerketak argi erakusten du familia gertatzen den bortxakeria agerian utzi behar dela mundu osoan eta osasun arazo larri gisa tratatu behar dela», esan du Lee Jong-wook OMEko buruak.

➔ HIESA

Lau gaixotik hiruk jasotzen dute tratamendua Europan

Gero eta jende gutxiago kutsatzen da hiesaz droga injektatzeko erabilitako xiringen bidez, Drogen Europako Behatokiaren arabera. EBko herrialde kide gehienetan daude martxan erabilitako xiringak eta orratzak jasotzeko egitasmoak, eta zentzu horretan farmaziek betetzen duten lana goraiatu dute adituek. Era berean, gero eta

jende gehiagok jasotzen du Europan hiesaren kontrako tratamendua. Beharra duten lau lagunetik hiruk, txosten honen arabera. Hala ere, Baltikoko herrietan «gabezia handiak» dituzte oraindik. Hala, hango zenbait herrialdeetan gora egin du erabilitako xiringen bidez kutsatu direnen kopurua. «Hobera egin dugu, baina ez dugu lasaitu behar».